

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko urriaren 19a. VIII. urtea. 2.292. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

TOPAko kideak Eusko Legebiltzarrera doaz, gaur


Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuarekin ere bildu dira; gaur osasun batzordeko buruarekin hitz egingo dute **3**



Foru Aldundiko Elkano aretoan bildu ziren, herenegun. A. IMAZ

Gorren komunitateak sentsibilizazioa sustatu nahi du artearen bidez

Gainditzen elkartearen Sentsibilizazio Astearren barruan, Jose Enrike Zeberio tolosarraren eta Bergarako Jon Balentziagaren artelanak ikusi daitezke Tolosako Aranburu jauregian azaroaren 15a arte **5**



Jon Balentziaga eta Jose Enrike Zeberio artistak Aranburu jauregian. A. IMAZ

Gazteek egindako marrazkiekin hasiko da gaur, Leitzako Mikologialdia

Igandera bitarte ekitaldi ugari izango dira; gaurkoan eskolako haurrek hainbat lan egingo dituzte igandeko jai egunean erakusteko **7**

Larunbatean ospatuko dituzte Ugane auzoko jaiak

XIII. Txirrindulari Igoerarekin hasiko da jai eguna, 12:00etan; herri kirolak, bertsolariak eta 'Santuipekoen' kontzertua ere izango dira **6**

Helduei zuzendutako dantza ikastaroak antolatu ditu Udaberrik

Tolosako dantza taldeak laugarren urtez eskainiko ditu eskolak; izena internet bidez eman daiteke eta azaroaren 3an hasiko dira **2**



FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK
Kondeko aldea, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETLATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040

Helduei plazako dantzak irakasteko helburuz, ikastaroa antolatu du Udaberri dantza taldeak

Izen ematea internet bidez egin beharko da, eta datorren azaroaren 3an hasiko da ikastaroa

Itzea Urkizu

Sekula ez omen da berandu izaten gauza berriak ezagutu eta ikasteko.

Udaberri dantza taldeak, bide horretan, laugarren urtez antolatu ditu helduei zuzendutako dantza ikastaroak.

Taldeko kideek plazako dantzak jendarteratzeko helburuarekin, 2008-2009 ikasturtean helduei begirako ikastaroak berriro antolatzea erabaki zuten, denbora luzez geldirik egon ondoren: «Ohar-tu ginen plazetan dantzan egiteko ohitura galtzen ari zela eta hori gertatzeko arrazoietako bat ezjakintasuna zela».

Horrela beraz, Erromeriako edo plazako dantzak irakastera bideratuta daude ikastaro hauek, hala nola fandango eta arin-arinak, larrain dantza, Lantzeko inauteria, eta abar.

Azarotik aurrera martxan

Ikasturte honi dagokionez, dantza ikastaroa azaroan hasiko da. Zehazki, datorren azaroaren 3an izango dute hitzordua, ostegunetik, dantza taldeak entsegu-lokal bezala erabiltzen duen Usabal kiroldegiko gelan.

Helduen dantza ikastaroko saioak ordu betekoak izaten dira, eta ostegunero biltzen dira, 20:30etik 21:30era bitarte. Aste Santuetako oporraldiaren ondoren, ordea, eguna aldatzen dute asteartearekin pasaz; izan ere, Udaberriko dantzariak sanjoanetakoa Bordondantza entseguak izaten dituzte.

Ikastaroan izena eman nahi dutenek, hilabetean 10 euroko kuota ordaindu beharko dute; ikasleak direnek, berriz, 5 euro. Izena emateko, dantza taldeak duen www.udaberri.com web orriaren sartu besterik ez da egin behar; bertan, ikastaroari buruzko berria agertuko da, eta datu batzuk sartu beharko dira.

Ikastaro hauetan izena emateko azken eguna, azaroaren 2a izango da.

• tolosa@hitza.info



Plazako eta erromeriako dantzak berreskuratzeko helburua izan du beti, dantza talde tolosarrak. N.LATABURU

Irati Artutxa • Helduen dantza ikastaroko irakaslea

«Lotsa galtzen ere ikasten da, dantzarako pausoak ikasteaz gain»

I. Urkizu

Irati Artutxa (Tolosa, 1989) Udaberriko dantzaria da, eta azken hiru palau urteotan, helduentzako dantza ikastaroetako irakaslea izan da.

Zenbagarren urtez antolatuko dituzte helduentzako dantza ikastaroak?

Aurtengoa laugarren ikasturtea izango da. Gogo handiz prestatzen ditugu ikastaro hauek, eta urtetik urtera jende gehiago animatzen da dantzara.

Zein da ikastaro hauen helburua nagusia?

Helburu nagusietako bat, jendea iri fandangoa eta arin-arina erakustea da, plazetan eta erromeria giroan dantza hauek egin ahal izateko. Hala ere, ez ditugu fandangoa eta arin-arina soilik irakasten; Eguberrien ondoren, larrain dantzarekin hasten gara,

apirila inguruan Udaberriko kideok erromeria antolatzen dugu, eta helduen ikastaroetako kideok erromeria horretan parte hartzea izaten da helburuetako beste bat; bertan, gurekin eta erromerira bertaratuakoeekin dantza egiten dute, kalejiran eta dantaldian bertan.

Helduak gogotsu aritzen al dira dantza ikasterakoan?

Jendea gogo handiz etortzen da ikastera. Denetik egoten da; batzuek erraztasun handiagoa izaten dute pausoak ikasterakoan, besteek baino. Hala ere, nire ustez haurrei eta gaztetxoek dantzak irakastea baino errazagoa da helduekin aritzea. Izan ere, umeak aspertu egiten dira pausoak errepikatzen badizkiezu. Helduek, be-

rriz, nahiago izaten dute pausoak eta dantzak errepikatzea, hauek ondo barneratzeko.

Zein izaten da ikasleen adinaren batzabestekoa?

Egia esan, ez dakit zehazki. 14 urtetik gorako jendea iruzatzen diogu gonbita, eta 14 urtetik 20 urtera bitarteko gazteek izena ematen duten arren, gehiago izaten dira 25 urtetik 50 urtera bitartekoak.

Askotan jendeak lotsa izaten du dantzarako. Zer esango zenioke izena eman nahi duen, baina egoera horretan dagoen jendea?

Animatu egingo nituzke gure dantzak ikastera, noski. Oso esperientzia atsegina izaten da, eta gure artean ere oso ondo pasatzen dugu. Talde ederra osatzen

dugu, eta lotsa guztiak ahaztu egiten dira; azken finean, lotsa galtzen ere ikasten da.

Aurtengo ikasturterako berrikuntzarik prestatu al duzue?

Urtero-urtero planteamendu bertsua izaten dugu dantzei dagokionez. Eguberriak iritsi arte fan-

«Haurrei dantzak irakastea baino errazagoa da helduekin aritzea»

«Fandangoa, arin-arina eta larrain dantza lantzen ditugu, besteak beste»

dangoa eta arin-arina lantzen ditugu, eta gero hasten gara larrain dantzarekin, aipatu bezala. Hala ere, aurtengo plazako dantza gehiago irakatsiko dizkiegu ikasleei, aurreko urteetan ere etorri izan direnek pauso berriak ikas ditzen: zazpi jauziak, polkaren bat edo beste, eta abar. Gainera, fandangoa eta arin-arina dakienak, Eguberrien ondoren izena eman dezakela aipatzekoa da, gainerako dantzak ikasteko.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekua ditu.

Interesatuak deitu 678 26 76 57 telefono zenbakira.

■ **Autoa.** BMW 130 I autoa salduz dut. 2006. urtekoa da, eta 54.000 kilometro ditu. Interesatuak deitu 665 72 47 telefono zenbakira.

MENDI-ALDE
Eguneko meniak eta karta
Bataioak, Jaumartzeak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

TOPA plataformako kideak Gizarte Politikako diputatuarekin bildu dira

Gaur Gasteizera joango dira Eusko Legebiltzarreko osasun batzordeko buruarekin hitz egiteko

Rebeka Calvo Tolosa

Gizarte Politika Saileko diputatu Ander Rodriguezek harrera egin zien herenegun, Tolosaldeko Osasun Publikoko herritarren plataformaren ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Elkano aretoan.

Plataformako kideek azaldu dutenez, bilera «lehen hartu-ema-na izanzen» eta lehenik eta behin, TOPAren ibilbidearen berri eman zioten Rodriguezi. Era berean, plataformaren eskaerak zeintzuk diren argitu zieten diputuari.

Horiek horrela, eskualdeko bizilagunek beren kekek azaldu zituzten diputatuari, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren planak aurrera egiten badu jasan beharko dituzten ondorioez hitz egin zuten, espezializatutako zerbitzu guztiak eta ospitaleko zaintza ustiapen pribatua duen Asuncion Klinikara desbideratzeko asmoa baitu Eusko Jaurlaritzak. «Gipuzkoako Foru Aldundiak, dena den, ez du gai honetan kompetentziarik, eta gure kekek ulertzeko dituela eta konpartitzen dituela esan arren, ezin izan genuen ezer gehiago itxi», argitu dute TOPAko kideek.



TOPAko kideak herenegun bildu ziren Ander Rodriguezekin. A. IMAZ

«**Osasun publikoa denontzat**» Gizarte Politikako foru diputatuak bere aldetik, Tolosaldea eskualdeko ospitalerik ez duen eskualde bakarria dela kontutan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuaren konpromisoa «pertsona guztientzat osasun publikoa eta unibertsala» lortzea dela nabarmendu zuen. «Kalita-

tezo osasun publiko unibertsala funtsezko oinarria izan dela ongizate egoera garatzeko, eta gizartearen elkartasuna eta ekitatea bermatzeko euskarria dela», gaineratu zuen.

Gaur Gasteizera

TOPA plataformako kideek, halaber, ez dutela amore emango argi-

tu dute, eta mobilizazio egutegiarekin jarraitzen dute. Gaur bertan Gasteizera joango dira, bertan Carmelo Barrio (PP) Eusko Legebiltzarreko osasun batzordeko lehendakariarekin bilduko dira. 09:00etan irtengo dira Usabal kiroldegitik, eta bileraren ondotik, elkarretaratzea egingo dute Eusko Legebiltzarrean parean.

PSE-EE Lehiberri eta Berazubirekin kezkatuta dago

R. C. Tolosa

Tolosako PSE-EE alderdiko Oria bailarako ordezkariak, Julio Astudillok, Lehiberri eta Berazubi- ren inguruan galdetu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari. «Zenbat dirurekin eta noiz finantzatuko dituzte proiektu hauek?», galdetu du.

Astudillok azaldukoaren arabera, Tolosako sozialistak kezkatuta daude bi egitasmo «estrategiko» hauekin. «Bi proiektu hauek ez dira orain sortu, Gobernu zentralak diru laguntza garrantzitsuak hitzartu ditu», gaineratu du. Zientzia ministerioak 2 milioi euro eman dizkio Lehiberri Astudilloren hitzetan.

Larunbateko manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte

R. C.

Larunbatean, hilak 22, Bilbon *Euskal Herriak konponbidea nahi du* lelopean egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte Asteasun, Ibarrran eta Alegialdean.

Asteasun autobusa 15:15 ean aterako da plazatik eta izena emateko herriko tabernetara jo behar da edo 615 70 87 32 telefono zenbakira deitu.

Ibarrran, aldiz, 15:00etan irtengo da kultur etxe paretik, eta Atari, Zubiaurre, Subegi eta Danon Txokoa tabernetan eman daiteke izena.

Alegialdeko bizilagunek ere izango dute autobusa. 15:00etan irtengo da Amezketatik, eta 15:30ean Alegiatik. Ohiko tokietan eman behar da izena ostegun baino lehen.

↓ TOPAren egutegia

HITZALDIAK

- **Gaur, urriak 19.** 19:30ean Baliarrainen egingo dute informazioa emateko batzarra, eta 20:30ean Hernialdeko udaletxean izango dira.
- **Bihar, urriak 20.** 19:30ean Alegian eta Ikaiztegiatoko udaletxe erabilera anitzeko gela.

■ **Urriak 27.** 19:30ean Ibarrran eta 21:00etan Bidaniako udaletxean.

■ **Urriak 29.** Orendaineko txanda.

■ **Azaroak 8.** 19:30ean Tolosako kultur etxean.

MOBILIZAZIOAK

■ **Tolosa.** Asteartero elkarretar-

ratzeak egingo dituzte 08:15etik 09:00etara osasun zentroan, eta 09:00etatik 11:00etara anbulatorioan.

■ **Gasteiz.** TOPAko kideak Gasteizera joango dira gaur. 09:00etan irtengo dira Tolosako kiroldegitik, eta Eusko Legebiltzarreko osasun batzordeko buruarekin bildu eta gero, elkarretaratzea egingo dute.

MANIFESTAZIOAK

■ **Tolosa.** Manifestazioa egingo dute azaroren 12an. 12:00etan hasiko da Trianguloa plazatik.

ELKARRETARATZEAK


■ **Andoain.** Azaroaren 5ean elkarretaratzea egingo dute udaletxe plazan, 12:00etan.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun

urriaren 31 baino lehen eta jaso

artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, **OPARI**



www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.

hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean, azaroaren 2an, **asteberu bat zotz egingo dugu** Aireberria Hotelaren eskutik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irazu Oñatin sartuko da lehian

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa aurrera doa, eta asteburu honetan final laurdenetako saioak izango dira

Amaia Agirrek eta Unai Muñozak hurrengo asteetako saioetan abestuko dute

HITZA URKIZU Villabona

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final laurdenak asteburu honetan hasiko dira. Jexux Mari Irazu larrauldarra, datorren larunbatean Oñatin ospatuko den saioan sartuko da Gpuntuako lehian.

Maiatzean hasi zen txapelketa, lehen fasearekin, eta guztira 76 bertsolari aritu ziren lehian, final zortzirenetarako txartela lortzeko. Guztira 32 bertsolarik eskuratu zuten hurrengo fasera pasatzeko aukera, eta 2007ko hamar semifinalista ere batu zaizkie final zortzirenetan.

Jexux Mari Irazu final laurdenetan sartuko da txapela lortzeko lehian, 2007ko Gpuntuako beste bost finalistekin batera. Oñatiko Zubikoa kiroldegian jokatuko duten saioan, Irazuk Beñat Lizaso, Agin Rezola, Iban Urdangarin, Iñaki Gurrutxaga eta Iñaki Zelaia izango ditu bertso kide oholtza gainean.

Imanol Arabaolaza izango da saioiko gai jartzailea, eta egin beharreko lanetan, guztira, 12 bertso eta 4 kopia osatu beharko dituzte bertsolariek: binaka, gaia emanda, sei puntuko motzean hiruna bertso; binaka gaia emanda, hiru puntuko koplari seina kopia; binaka gaia emanda, zort-



Jesux Mari Irazu 2007ko Gpuntuako finalistetako bat izan zen. HITZA

tziko handian hiruna bertso; bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso; eta azkenik, kartzelako lana osatu beharko dute, eta binaka egin beharko dute, gaia emanda hamarrek txikian, hiruna bertso osatuz.

itxaron beharko du final laurdenetako saioa jokatzeko. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan kantatuko du azaroaren 6an, Ane Labaka, Arkaitz Oartzabal, Iker Zubeldia, Iñaki Apalategi eta Jokin Urangarekin.

Finalerdietako saioa, Tolosan

Final laurdenetako bost saio izango ditu aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak. Final laurdenetako saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalaurrekoetan lehiatzeko, eta horrez gain, puntuaziorik onena lortzen duten beste 13 bertsolari ere pasako dira hurrengo fasera.

Aurtengo Gpuntuak, «oroimenera begira» jarri nahi izan du finalaurreko saioetan, eta Tolosako saioaz gain, Arrasatekoa eta Hernanikoa ere bereziak izango dira.

Horrela beraz, datorren azaroaren 27an, Usabal kiroldegian izango da Tolosako finalaurrekoa, eta Jose Ariztimuño *Aitzolen* fusilamenduaren 75. urteurrena gogora ekarriko dute bertso saioan. Hernanikoa finalaurrekoan, berriz, Xabier Leteren heriotzaren lehen urteurrena izango dute gogoan.

Bigarren saioa, Villabonan

Gpuntuako final laurdenetako bigarren saioa, berriz, Villabonan izango da, datorren igandean.

17:30ean hasita, Andoni Otamendi, Beñat Gaztelumendi, Ander Lizarralde, Iñigo Mantzisor, Unai Agirre eta Unai Gaztelumendi bertsolariak taula gainean ariko dira, aipaturiko lanak burutzen.


Hondarribian eta Azpeitian

Eskualdeko beste bi bertsolari k ere, Gpuntuako final laurdenetan parte hartuko dute. Amaia Agirrek, hurrengo larunbatean abestuko du, hilaren 29an. Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan izango da saioa, eta Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Haritz Casabal, Iñigo Izagirre eta Nahikari Gabilondo izango ditu lehiakide.

Unai Muñozak, berriz, bi astez

hitzaren udazkeneko arropa eskaintza

Haurrentzako jertsea: **25 €**



KOLOREAK:
Morea • Berdea

NEURRIAK:
3-4/5-6/7-9/9-11



Helduentzako
Jertsea: **29,5 €**



Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modeloak

Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

Urriak 28 bitarte duzu aukera eskaera egiteko

• TELEFONOZ: 902-82 02 01

• POSTAZ: harpidetza@hitzaz.info

hitzaz info

→ Laburrak

Adunako KZ Guneko tutoretza egunak

ADUNA › Adunako KZ Gunean, etzi, hilaren 21ean, tutorea izango da 09:00etatik 13:00etara bitarte. Era berean, azaroaren 4an nahiz 18an ere tutorea bertan izango da, arratsalde, 16:00etatik 20:00etara bitarte.

Ikastaroa dementzietei eta Alzheimerri buruz

ZIZURKIL › Esku-hartze sozialerako Lahar elkarteak antolatuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika saila diruz lagunduta, dementzietei eta Alzheimerri buruzko doako ikastaroa izango da kultur etxean. Azaroaren 7an, 14an eta 21ean izango da, eta izen-ematea 663 05 72 23 telefonora deituta, nahiz formakuntza@laharelkargoa.org helbidera idatzita egin daiteke.

Artean, oztoporik ez

Jose Enrique Zeberio eta Jon Balentziaga artista gorrek beraien obrak jarri dituzte ikusgai Aranburu jauregian

Gorren Komunitatearen VIII. Sentsibilizazio Astearen barruan antolatu dute erakusketa

Imanol Garcia

Gaizdutzen gorren elkararteak antolatu duen Gorren Komunitatearen VIII. Sentsibilizazio Astearen erakusketa bat dago ikusgai Tolosako Aranburu jauregian. Jose Enrique Zeberio margolari tolosarra eta Jon Balentziaga margolari eta eskultore bergararrak beraien obrak jarri dituzte. Bi artistak gorrek dira, eta beraien lanak Sentsibilizazio Astearen erakustekak badu bere helburua, Zeberio azaldu duenez: «Nik Sentsibilizazio Astearen barruan parte hartu nahi nuen. Arteak gorren komunitatean lekua izatea gustatzen zait: ikusteko, deigarria izateko, gaitasunak ditugula erakusteko, margotu dezakegula erakusteko, oso espresiboak garela adierazteko...».

Erakusketa zabalik izango da azaroaren 15a arte. Asteartetik larunbatera dago irekita, 17:30etik 20:30era. Aranburuko beheko solairuan dago erakusketa. Eskailera jakitsi eta berehala, bi koadro daude. Balentziagak egin du horietako bat, eta bertan «ongi etorri» irakurri daiteke, bai zeinuen hizkuntzan, bai euskaraz. Bestea Zeberio eginikoa da. «Nire gor nortasuna adierazten dut bertan», dio.



«Guk dena irudietan imajinatzen dugu, irudien bitartez pentsatzen dugu»

JOSE ENRIQUE ZEBERIO
Artista

«Argiekin eta itzalekin jokatzeko dut, eta asko gustatzen zait begi ingurua»

JON BALENTZIAGA
Artista

Artista tolosarrak beste 19 koadro jarri ditu hormetan, horietako batzuk ohiko akuarelaekin egindakoak eta besteak akuarela likidoarekin. «Niri akuarela likidoa gehiago gustatzen zait, koloreak askoz biziagoak eta indartsuagoak direlako», azaldu du. Sei koadroetan ura da gai nagusia

eta horiek denak akuarela likidoarekin eginak daude. «Margo mota hori hodieta etortzen da eta hodi horiek erabili ditut margo koadroaren gainean bota eta koloreen leherketa sortzeko», esan du.

Erakusketako beste bi koadro Txinparta elkarrearen lehiaketako irabazleak dira, 2010ean eta 2011n. Protagonistak pertsonak diren koadroak ere jarri ditu ikusgai artista tolosarrak.

Markoak ere artelan

Jon Balentziagak hamabi eskultura jarri ditu, eta bertan hainbat gai islatu ditu, lanen izenek azaltzen dutenez: *Bizikleta profesionala baztertua*, *Abokatuaren omenez*, *Bost anai arreba ijitu ikastolara bidean*, *Eiffel dorrearen aurkako zurrumbilao*,... Oteizaren eskultura asko gustatzen zaio eta bere lanetan hori ikusten da. Txikitatik artearekin lotura izan du Balentziagak eta, besteak beste, Arte Ederrak lizentziatura ikasi zuen.

Margolanei dagokionez, paisaiak eta erretratoak ditu gusturik. Hain justu, bere familia guztia azaltzen da obretan: bera, emaztea eta bere bi haurrak. «Argiekin eta itzalekin jokatzeko dut, eta asko gustatzen zait begi ingurua», dio Balentziagak. Espresionismoa atsegin du, askatasun handiagoa ematen diolako margotzerakoan.

Balentziagaren koadroen markoak ez dira nolanhikoak. Balentziaga berak egin ditu, eta artelanaren parte garrantzitsu dira. «Gustura nago markoekin. Indarra ematen diote obrari», azaldu du.

Irudien bitartez pentsatu

«Pertsona askok uste dute gorrek ezin dugula artearekin lotura duten gauzak egin», dio Zeberio. «Baina artearen historiari begiratu gero, pertsona gor asko izan dira artearekin lotura izan dutenak. Ardura pixka bat ere sentitzen dut gai honen inguruan jendea sentsibilizatzerakoan, hau da, pertsona gorrek artista izan gaitezkeela esatean».

Gorrek espresiorako duten gaitasuna nabarmendu du Zeberio:



Jose Enrique Zeberioaren bi margolan. Ezkerrekoan, bere gor nortasuna adierazten du. HITZA



Ezkerrean, Zeberioaren obra bat, eta eskuinekoan, Balentziagaren margolanak berak egindako markoekin. HITZA



Abokatuaren omenez obra. HITZA



Balentziagak egin dituen zenbait eskultura. HITZA

«Izatez gorrek askoz espresiboak gara, bai keinuak egiterakoan, baita imajinatzerakoan ere. Gure gaitasuna bisuala da. Guk dena irudietan imajinatzen dugu, dena irudietan laburtzen dugu gure buruan eta, beraz, irudien bitartez pentsatzen dugu. Asko imajinatzen ditugu zehetasunak, eta horregatik, nire ustez gaitasun handiagoa dugu margotzeko».

Entzuteko gaitasuna dutenek eta gorrek ez dutela pentsamolde berdina dio Zeberio: «Entzuten dutenek lengoaiari ematen diote garrantzia; hitzen bitartez pentsatzen dute. Gorrek, berriz, irudien bitartez pentsatzen dugu eta horrek asko laguntzen du margotzerakoan, oso bisuala delako».



→ **Laburrak****Elikadura makrobiotikoari buruzko hitzaldia, bihar**

ABALTZISKETA › Elikadura Makrobiotikoari buruzko hitzaldia antolatuko dute Abaltzisketan. Bihar, osteguna, 20:00etan izango da, eta hizlari lanetan Jexux Larretxea ariko da. Kultur etxean izango da, eta joan nahi duenak sarrera 3 euro ordaindu beharko du.

Gaur, interneteko mundu irekiaz hitz egingo dute

ABALTZISKETA › Gaur 17:30ean, *Internet: mundu ireki bat* hitzaldia izango da. Herriko kultur etxean egingo dute, eta azalpenak ematera Jose Ramon Zuru-tza joan da. Ordu eta erdiko iraupena izango du. Hltzaldia-aren helburua, alde batetik, interneten erabilera nagusi edo adineko taldeen artean normalizatzea, eta beste aldetik, sareak eskaintzen dituen aukerak ezagutaraztea izango ditu.

Odola ateratzeko aukera izango da ostiralean

ALEGIA › Alegiako sendagilearen etxean odola emateko aukera izango da ostiralean, hilaren 21ean. Gipuzkoako Odol Emaileak elkarteak, Alegian, 19:00etatik 21:00etara egongo dira. Herriar guztiei dei egiten zaie odola ematera gerturatze-ko. Garrantzitsua da ahal duen guztiak odola ematea.

Uganeko auzotarrek larunbata izango dute festarako eguna

Urteroko ohiturari jarraituz antolatu dute auzoko festa eguna; txirrindulari igoerak emango dio hasiera

Eneritz Maiz Tolosa

Larunbatean, hilaren 22an, festari hasiera emango dion suzuria 12:00etan lehertuko da. Ugane auzoko jaia izango da, auzotarrak elkartzeko eguna, alegia.

12:00etan Uganeko XIII. Txirrindulari igoera proba izango da, haur eta helduentzat. Ondoren, eta behin txirrindulari guztiak auzora iritsita, Angel Arrospeidek kanako egur bat zutikako eran ebakiko du. Jarraian, Hernaniko bertsolari gazteen txanda izango da, eta beraiek animatuko dute poteoa. Poteoa egiteko, pintxoak ere izango dira.

Santuipekoen kontzertua

14:00etan, mahaian esertzeko unea izango da, eta auzo bazkaria egingo dute. Arratsalderako, ume jolasak eta toka txapelketa prestatu dituzte. Goizetik, iluntzean zozketatuko duten saskiaren txartelak salgai jarriko dituzte.

Egun guztian zehar, giroa alaitzeko trikiti doinuak izango dira



Uganen parte hartu zuten txirrindulari txikiak. ASIER IMAZ

↓ **Uganeko Jaiak****URRIAK 22, LARUNBATA**

■ **12:00.** Uganeko XIII. Txirrindulari igoera.

■ **Ondoren.** Angel Arrospeidek kanako egur bat zutikako eran ebakiko du. Jarraian, Hernaniko bertsolari gazteek animaturiko poteoa egingo dute.

■ **14:00.** Auzo bazkaria.

nagusi, eta iluntzean *Santuipekoen* kontzertua entzuteko aukera izango da. 21:00etan, berriz, auzotarrak elkartzu auzo egongo dute.

■ **Ondoren.** Ume jolasak eta toka txapelketa izango dira. Jarraian, saskiaren zozketa egingo dute.

■ **Iluntzean.** *Santuipekoen* kontzertua izango da.

■ **21:00.** Auzo afaria izango da.

■ **Ondoren.** Festarekin jarraitzeko, garagardo eta mojitork ez da faltako jarriko duten barran.

Festa luzatzeko, barra txiki bat jarriko dute. Bertan parranda egin nahi duenarentzat garagardorik eta mojitork ez dela faltako garbi utzi dute antolatzaileek.

Langile eta langabeentzako ikastaroetan izena emateko aukera dago

Azaroaren 26an hasiko dira Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa institutuak antolatutako eskolak

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak hainbat ikastaro prestatu ditu. Azaroaren 26an, larunbatean, hasiko dira ikastaroak. Langileei eta langabetuei zuzenduta daude, eta doakoak dira.

Ikastaroen artean hauek daude aukeratzeko: Txirbil harroketa bidezko prozesuen mekanizazioa (fresatzeko makina) ikastaroa, honek 80 ordu izango ditu; Adierazpen grafikoa eraikitzea metalikoetan ikastaroa, 50 ordukoa da; Fabrikazio mekanikorako CAD-CAM programak erabiliz dokumentazio tekniko lantzea (abiadura handiko mekanizazioa, Uni-graphics NX) ikastaroak, berriz, 90 ordu izango ditu; eta KZ eta KAKo makina elektrikoak (instalazio eolikoak) ikastaroak 40 orduko iraupena izango du.

Oraindik izena emateko aukera dago ikastaro horietan. Ikastetxean bertan egin behar da, edo 943 65 11 47 telefono zenbakira dei daiteke.

Bergaran izango den kanporaketaren zain daude eskualdeko musikari gazteak

Igandean 18:00etan jokatu da Gipuzkoako Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa; orduan jakingo dira aurrera egingo dutenen izenak

E. Maiz

Gipuzkoako Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa Bergarako Zabolategi aretoan izango da, igandean, 18:00etan. Hogei abesti aurkeztuko dira, eta horietatik 6 berriak izango dira. Zazpi bakar-lari, hamaika bikote eta bi talde ariko dira. Bertan jakingo da bi kanporaketetik zeintzuk izango diren aurrera egingo dutenak. Finala, azaroaren 27an izango da Donostiako Antzoki Zaharrean.

Bergarako saioan, besteak beste, Maria Asenjo eta Maialen Lopez bikote tolosarra; Marta Olea eta Nora Salvador bikote alegiarra; eta Alegiako Keiran taldea izango dira.

Lezon izan zen lehen kanporaketan Mateo Zubeldia lizartzarra eta Aitziber Guiu tolosarra izan ziren. Lehenak, Xabier Leteren *Alzateko Jaun* abestia aurkeztu zuen, eta bigarrenak, bakarka bere gitarrekin bere bi abesti berri aurkeztu zituen, *atzera ez begiratu* eta *bizitzaren uhinak*. Antolatzaileek lehen saioaren balorazio positiboa egiten dute. Lezoko aretoa jendez bete zen.



Aitziber Guiu eta Mateo Zubeldia, Lezoko kanporaketan izan ziren. HITZA

Ikastaro bat emateko,
Psikologian Lizentziatua dagoen
pertsona bat behar dugu,

3. adineko pertsonekin eta
psikogeriatrian la esperientzia duena.

Kurrikulumak helbide hontara bidaltzeko:
ainho333@hotmail.com

Mikologialdiak perretxikoez ikasteko aukera eskainiko du, gaurtik igandera

Perretxikoak jasoko dituzte bihar eta etzi, eta igandean erakutsi; dastatzeko aukera ere izango da

Iñigo Terradillos Leitza

Alke Leitzako kultur elkarteak antolatuta, abian da gaurtik aurrera IV. Mikologialdia. Igandera bitarte perretxikoa ardatz duten hamaika ekintza izango dira herrian.

Aurtengoa laugarren Mikologialdia izan arren, lehen ere izaten ziren herrian mikologiari eskainitako asteak. Juan Mari Barriola Alke elkarteko kideak azaltzen duenez, 1969. urtean egin zen lehendabizikoa: «Oihartzuan handia izaten zuten Leitzako mikologia asteak, eta jende ugari gerturatzeko zen». Bada, hainbat urtez ospatu ostean, etenaldia izan zuten, 1992an berriro antolatzen hasi zirenen arte. Antolatzeari utzi zioten berriro, eta orain lau urte hasi dira Mikologialdiarekin.

«Afizio handia dago herrian, eta gure asmoa zaletasun hori zabaltzea da, perretxikoen inguruan zerbaite gehiago ikastearekin batera», dio Barriolak. Izan ere, antzina egiten zen ekimenak lehiaketa izaera bazuen, gaur egun egiten denak izaera didaktikoa du. «Guk perretxiko motak ezagutarazi nahi ditugu, horregatik erakusketa moduan egiten dugu. Jendeak zein diren pozointsuak eta zein jangarriak ikastea nahi dugu, eta gure inguruan zein perretxiko aurkitu ditzakegun azaldu», esan du.

Perretxiko mota desberdinak ezagutarazteko, deialdi berezia egiten dute herrian Alke elkarteak. «Mendian perretxikoak erakusteko parada izateaz gain, euren hartzeko eskatzen diegu herritarrei, eta gero jasotzen dituzten onddo eta zizak gurera ekartzeko.



Pasa den urtean bezala, karrapean egongo dira ikusgai perretxikoak aurten ere. SARA GOMEZ

Ondoren, horiek sailkatu egiten ditugu», azaldu du Barriolak. Bihar, etzi eta larunbatean egingo dute lan hori, udaletxeko karrapean. Espezie guztiak izendatuta eta banatuta utziko dituzte, igandeko erakusketarako.

Adin guztiei zuzendua

Alke elkarteak, bestalde, adin guztietako jendearen parte hartzea bultzatzen dute. Horren adierazle, eskolako haurrek marrazkiak egingo dituztela perretxikoen inguruan aste guztian zehar. Horiek igandean erakutsiko dituzte, eta lehiaketa egingo dute. Horrez gain, larunbatean gazte-txoenentzat mendi irteera antolatu dute Mendibil elkarteak, eta perretxikoak biltzen egongo dira. Halaber, igandean perretxikoen inguruko tailerra ere izango dute etxeko txikiak.

Bestalde, perretxikoak ezagutzeko parada izateaz gain, euren zaporea ere dastatu ahalko da. Izan ere, perretxikoak sukaldatu dituzte igandean.

↓ IV. Mikologialdia

EGITARAUA

■ **Urriaren 19tik 23ra.** Gazte txoenek marrazkiak eta abar egingen dituzte eskolan, igandeko erakusketarako.

■ **Urriaren 20an eta 21ean.** Herriarrek bildutakoa jasoko dute udaletxeko karrapean, 19:00etatik 20:00etara.

■ **Urriaren 22an.** Haurrentzako mendi irteera Mendibil elkartearen eskutik. 09:30ean abiatuko dira onddo-zizak biltzera.

Bai erakusketarako, bai eta horiek dastatzeko ere, perretxikoak edukitzea beharrezkoa da, noski, eta badirudi aurtengoa ez dela oso erraza izango jaki preziatu hau mendian berehalakoan aurkitzea. Alke elkarteko kideak azaldu duenez, «egin duen eguraldiaren eraginez ez dago perretxiko asko mendian, beraz, ikusi beharko da aste honetan zer egu-

09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik aurrera, perretxikoak sailkatuko dituzte. 18:00etatik aurrera ez dituzte gehiago jasoko.

■ **Urriaren 23an.** 11:00etatik aurrera hainbat ekintza izango dira: erakusketa mikologikoa, haurrentzako tailerra, proiektio didaktikoa ziren inguruan, eskolako haurren marrazki-lehiaketaren erakusketa, mokadu dastatzea, Georgina Hassan abeslariaren kontzertua...

raldi egiten duen, eta zenbat perretxiko jasotzen diren».

Festa amaitzeko, musika

Mikologialdia «borobiltzeko», Alke elkarteak kontzertua antolatu du igande arratsalderako. Leitzar jatorria duen Georgina Hassan Argentinako abeslaria ariko da, 19:00etatik aurrera, Leitzako zinemaren.

→ Laburrak

San Migelera joango dira igandean motorzaleak

IBARRA ▶ Langostino Moto elkarteak ezohiko irteera egingo du igande honetan, hilaren 23an. Villabonako gasolindegitik irtengo dira 10:00etan Aralarako San Migel aldera. Bertan, hil berria den Ander kidearen sendiari lagunduko diote haren errautsak lurperatzen. Elkartetik adierazten dutenez, ekitaldi irekia da, nahi duen pertsona orok parte hartu ahalko du, eta motoz nahiz autoz joateko aukera dago, «irteera bera berezia baita».

Tolosa Kantari kantu jirarekin batera, bazkaria

TOLOSA ▶ Hil honetako Tolosa Kantari, euskal kantu jira, hilaren 29an izango da (beti bezala, hileko azken larunbatean), 12:00etan, Tontokaletik abiatuta. Oraingo honetan Legazpiko Alaitasuna errondailako musikariaren laguntza izango dute, eta kaleak kantuz alaitzen aritu eta gero, kantu bazkaria egingo dute Oargi elkartearen, 14:30ean. Bazkaria, babarrun-jatea, 17 euroren trukean izango da. Txartelak Xirimiri txokolategian daude salgai. Antolatzaileek kantu bazkarirako txartelak lehenbailehen eskuratzea gomendatzen dute, leku mugatua baitago. Txartelak hartzeko azken eguna hilaren 24a izango da.

Mikologia Jardunaldiak hasiko dira gaur

TOLOSA ▶ Gaur 20:00etatik aurrera *Bere habitatean inprobisatzen* mikogastronomiako hitzaldia eskainiko dute Ruben Trincado Mirador de Ullia jate txeko sukaldariak eta Fronton jatetxeko Roberto Ruizek, Zerkausian. Hainbat perretxiko mota prestatuko dituzte eta hitzaldiaren amaieran dastatu ahal izango dira.

Esbertza

ESKELAK

943 65 56 95
tolosaldean@hitza.info

-Eskeronak-

**JOXE
ZINKUNEGI
UZKUDUN**

Eskerrik asko egun hauetan lagun diguzuen guztioi eta bereziki omenaldia antolatzen ibili zareten guztioi.

Aitzarteko sendia

ERREZIL, 2011ko urriaren 19a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Berdintasunaren Aldeko II. Astearen barruan gaur, 18:00etatik 21:00etara, **Taldeko atentzioa indarkeriatik bizirik iraun duten emakumeekin** tailerraren bigarren zatia udaletxe-ko pleno aretoan. Dinora Aguiñada izango da tailerreko moderatzailea.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Box.a arte elkarteak eta Gko galeriak antolatutako Makina-Tu erakusketa Aranburu jauregian azaroaren 5a arte.
■ **Tolosa.** Arketal konpainia frantsesaren 150 lan biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke Topic zentroan otsailaren 12a arte.
■ **Tolosa.** Gainditzien elkartearen Sentsibilizazio Astearen barruan, Aranburu jauregian pertsona gorrek egin dituzten lanak ikusi daitezke. Era berean, San Frantzisko pasealekuan jarritako egurrezko paneletan eta kultur etxetik zintzilik dauden oihaltan pertsona gorrek dituzten trabak ikusi daitezke.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Internet bidez enpresa lehiakideen berri izateko tailerra

Lehiberrik antolatutako IKT astearren barruan, informazioa jasotzeko autobusa dabil eskualdean barrena

Rebeka Calvo Ibarra

Tolosaldako Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroak antolatutako Tolosako III. Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) Astearen barruan, Euskaltel fundazioaren autobusa egon

zen atzo goizean Apataerreak industrialdean. Ikasgela mugikorra enpresari zuzendua dago, eta ostirala bitarte herri desberdinetan egongo da 09:00etatik 13:00etara. Tolosako Usabalen astelehenean egon zen, eta gaur Iru-rako Katategin egongo da. Iruatik Asteasuko industrialdera iritsiko da ostegunean, eta Tolosako Trianguloan ostiral goizean egongo da. Apataerreak atzo, interneten enpresa lehiakideen berri izateko lau orduko ikastaroa eskaini zieten gerturatu zirenei. Gaurkoan, aldiz, internet bi-

dez fakturazioa igotzen lagunduko dute beste lau orduko ikastaroan.

Asteasun, ostegunean, bestelako ikastaroa jaso ahal izango dute gerturatzen diren enpresetako arduradunek, izan ere, software libre erabiliz kostuak nola aurreratu daitezkeen azalduko dute. Ostiralean berriz, Trianguloan egongo da, eta bertan tutoretza informatiko irekia eskainiko die gerturatzen diren enpresa eta gizabanakoei.

Era berean, komertzioei zuzendutako ikastaroak ere egiten ari dira egunotan. Tolosako KZgunean 14:00etatik 16:00etara teknologia berrien inguruko ikastaroa jasoko dute ostirala bitarte. Leku berean, baina 18:00etatik 20:00etara, pertsona orori zuzendutako ikastaroak eskaintzen ari dira. Gaur software librez hitz egingo dute, hau da, lizentzia gehiago ez ordaintzeko bi orduko ikastaroa eskainiko dute. Bihar gailu mugikorren erabilera seguruaren inguruan hitz egingo dute.

Bukatzeko Lehiberrik jardunaldietan parte hartu duten guztien artean iPad bat zozketatuko dutela ere azaldu du.



Apataerreak egon zen atzo, ikasgela mugikorra E.MAIZ

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



Programazioa

28 KANALA

■ **08:30.** Ur eta lur. ■ **09:00.** Fofur. ■ **09:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **10:00.** Artearen ibilbidea. ■ **10:30-11:00.** Tertulia. ■ **11:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **12:00.** Ikusmira. ■ **12:30.** Euskal Herriko Dantza Txapelketa. ■ **13:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Artearen ibilbidea. ■ **14:30-15:00.** Tertulia. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Ikusmira. ■ **16:30.** Euskal Herriko Dantza Txapelketa. ■ **17:00.** Amaigabeko istorioa. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Walker. ■ **18:30.** Ikusmira. ■ **19:00.** Kotxe klasikoak. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Halterofilia Txapelketa. (*16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

TXOLARRE IRRATIA (107,6)

■ **11:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia: besteak beste, Berdindide elkarteak antolatutako II. Berdintasunaren Aldeko Asteaz hitz egingo dute. ■ **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina: besteak beste, Nekane Azuabarrenari, Donostia-ko Ibilizten Benta Berri zentroko arduradunari, elkarrizketa; Agifef elkartearen lana; eta Zortziko Aldrebesa, bertsolaritzari eskainitako tartea. ■ **13:00.** Lehia-keta. ■ **13:30.** Info 7ko albistegia. ■ **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **16:00.** Pastadun. ■ **16:30.** Koska. ■ **17:00.** Kabitik plazara: Gpuntu. ■ **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa magazina. ■ **19:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia. ■ **20:00.** Info 7ko albistegia. ■ **20:30.** Munduko. ■ **21:30.** Koska. ■ **21:30-22:30.** Bide Onenetik.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

